

Sanjosetako bertso saioa Igorren martiaren 19an

Inguruetako bertsozaleak hilaren 19an, arrastiko zazpiretan izango dabe Arratiako Bertso Eskoleak antolatutako bertso saioaz gozatzeko aukerea Igorreko Kultur Etxean. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga bertsolariak izango dira saioan bertsoan jardungo dabenak. Saio honetako ezagurria dana lez, puntako bertsolariak dira kantuan ibiliko diranak. Igazko kartel bera da; izan be, igaz bertan behera geratu zan, konfinamentua zala eta. **12. orrialdea**



Mendifilm jaialdiko onena Igorreko Lasarte Aretan martiaren 18an
 10. orrialdea

Zuriñe Garcia "ez da jatekoa bakarrik, giroa be bada"

Jatekoa eskatzeko aplikazio ugari sortu diran arren, jenteak urteteko premia daukala uste dau Zuriñe Garcia chef-ak.

Michelin izarra daukan jateke bateko sukaldariburu da Zuriñe Garcia Igorrekoa. Ikutu barritzailea daukien platerak prestatu arren, oinarria betiko sukaldaritzea dala dino eta ez daukala gustuko laborategi itxurako sukaldaritzea.



COVID-19aren kontrako neurriak ekarritako aldaketak min handia egin deusiela ostalaritzeari dino. Ha-ta guzti be, jenteak urteteko go-goa daukala eta hori barri ona dala jateketakoentzat. **8. eta 9. orrialdeak**

M8aren inguruko kultura jarduera ugari hileon



Arratiarrak herriko plazetara urten ziran martiaren 8an dana aldatu behar dala aldarrikatzeko, matxismoak arlo guztietan eragina daukalako. Guztira 600 bat lagun izan ziran mobimentu feministaren deialdiagaz bat egin ebenak. Hilaren bigarren hamabostaldian, hausnarketa feminista egiteko kultura jarduera ugari egongo dira; antzerkia, zinea, mahai-ingurua eta ikastaroak, tartean. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskerea, bakarrean nahiz beste hizkuntza batzuekaz batera, ama hizkuntza lez aldarrikatzen dau BFAk

Azterketearen arabera, Bizkaian 120 hizkuntza baino gehiago egiten dira. Euskerea eta gaztelaniaz gainera, hizkuntza nagusiak, galegoa, arabiera, tamazight-a eta errumaniera dira. **5. orrialdea**



ARANTZAZU/AREATZA/IGORRE/LEMOA

Gaurko Nagusia Fundazioagaz hitzarmena sinatu dabe

Arantzazu, Areatza, Igorre eta Lemoako Udalak Gaurko Nagusia fundazioagaz hitzarmena sinatu dabe Laguntza Teknikoen Bankua herritarren zerbitzura egon daiten. Udal bakotzak kuota bat ordainduko dau urtean eta kuota horren truke zerbitzu batzuk izango ditu. **7. orrialdea**

ARTEA

Artean Gernikako Arbolaren oinordekoa landatu dabe

Maurizia pandero-jolearen eta Leon albokariaren eskulturearen ondoan landatu eben Gernikako Arbolaren oinordekoa, Arteako Udalak bandera barria daukala ospatuteko. Ekitaldi ofizialean Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, Arteako alkatea, zinegotziak eta herritarrek egon ziran.

Alkateak, Batzar Nagusietako lehendakariaren eskutik jaso eban oinordekoaren benetasuna bermatzen dauan ziurtagiria.

Ekitaldiaren aurretik, ikurriña eta udalaren bandera barria al-tzau ziran udaletxe ondoan. Bander barria udalbatzan onartuta eta Bizkaiko Batzarretan tramitean dago. **6. orrialdea**

ZEURE BERBEA

Zeberioko Udalean guzurak hanka motz

Aste honetan EAJ-PNVtik gertu dagoan komunikabide batek Zeberioko alkateari alkarrizketea egin deutso 2021eko udal aurrekontuen inguruan. Berbaz berba paragrafo hau irakurri daiteke aitututako alkarrizketan:

Así queda reflejado en los presupuestos aprobados recientemente para 2021 gracias a la mayoría que ostenta en la corporación local ya que EH Bildu votó en contra "a pesar del contacto mantenido con la oposición, de la reunión de la comisión de cuentas y de haber incorporado aproximadamente el 65% de sus propuestas y aportaciones", lamenta. (Deia, 2021/03/02)

Zeberioko EH Bilduren udal taldeak ezezko botoa emon eutsen aurrekontuak honako arrazoiakaitik:

- Ez diralako parte-hartzaileak.
- Udal gobernua ez dalako behin be gugaz batu gure proposamenez edo aurrekontuak hobetuteko moduez berba egiteko.
- Aurrekontuak udalbatzan onartu aurretik egin beharreko Batzordean udal gobernuak argi eta garbi esan ebalako aurkeztutako aurrekontuak aldaezinak zizala,

hau da, eurak ekarritako moduan aurkeztuko ebezala zezeilaren 5eko Udalbatzan.

-Zeberioko EH Bilduk egindako 10 proposamenetatik bat be ez dalako onartu.

-Kultura, kirol eta aisialdi arloetan murrizketa nabariak egon diralako.

-Ez dabelako bape be kontuan hartu COVID-19ak herritarrengan izan eta izango dauan eragina.

Alkateak dino oposizioagaz hartu-emonetan egon dirala. Oposizioagaz harremana hutsa ez bada, oso eskasa da. Zeberioko EH Bilduk informazioa soilik jasoten dau hilabete birik behin deitutako udalbatzan edo presatik. Urtaileko udalbatza ez eben deitu be egin. Hori da EAJk Zeberioko herritarrei deitsan errespetuaren adierazle.

Gauzak holan, eta onartu zituen aurrekontuen irakurketa desbardinak alde batera itxita, EAJko udal gobernuaren jarkerea salatu gura dogu. Beste behin be euren gehiengoaz baliatu dira aurrekontuak onartzeko herritarren benetako beharrai aurre egin barik.

Gezurra esan nuen mendian, neu baino lehenago heldu zen herrian!

Zeberion, 2021eko martiaren 4an.

ZEBERIOKO EH BILDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Amantal



Soineko erroparen aurreko aldea ez lohitateko, haren gainean erabilten dan jantziari amantal esaten jako (amántala, ahoskatuta). Altzoko, amantaleku eta amental berbak be jaso dira Arratia inguru honetan. Telazko, kotoizko, linozko edo plastikozko jantzi osagari hau sarri-sarri ikusteko aukerea dogu gaur egun oindinokarren sein edo umeengan, jantza taldeetako neska jantzariengan, hainbat ofizioetako beharginen eskulanetarako, zapatarari edo burrinegile... Baina amantal guztien artean ospetsuenak, zalantza barik, sukaldarietak dira.

ERETXIA

Euskerea bihotzean

Euskerea bihotzean eroan beharrean hobeto minganean eroango bagendu. Azkenaldian, sekula pasau ez jatan pasetan jabilt: ume txiki-txikiak, bost urte ingurukoak edo... kantetan entzuten dodaz, olgetan, barreka... erderaz. Eta hau ez da kasualidadea, ez da zoria, ez da txiripaz pasetan.

D ereduak ez dauz umeak euskalduntzen -hori argi daukagu- eta hezkuntza sistemako eragileak alkarren kontra mokoka gabiz. Euskalgintzaren bidekurutzetan eta bide barriak jorratzeko tertzioan gagoz; baina itsu, ekintzaz jositako norabide bako bidean. Koreografiak, abestiak, muralak, marrazkiak eta esaldi esanguratsuak egin eta egin... baina norantza goaz?

Gure umeak hitanoa ez darabilela? Zelan erabiliko dabe ba, ezetu be ez dabe egiten eta. Eta, horren errudun geu gara, geure belaunaldia, hogeta hamabost eta berrogeta hamar urte bitarteko guraso abertzale-furgonetero-naturazale-ternuatarrak.

Gure umeai ez deutsegu hizkuntzea bizirik erregalau, eta normala grazia eta gazia daukan alboko hizkuntza horretara jotea, neuk be bardin egingo neuke-eta. Beste horrek dana daukan bitartean, geurea gaza, gatzbakoa, geldoa eta gelbera da.

Aditz trinkoak, gramatika, eta etenbako zuzenketak, eta ez gatzik ez piperrik ez daukan euskera fosilizau merkea edaten dabe. "Eske beste egunean be esan neuntsun niri ulerik ez hartzeako" musturrera eroandako adibide bat baino ez da, bai, eta beti esango dot euskerarik txarrena erabilten ez dana dala. Baina, euskaldunok be espainolez pentsetan hasi gara, hor dago arazoa. Eta, hau guztiau gitxi balitz, hor daukagu herriko kultura eskaintza espainolez; herriko zinea, TikTok, Instagram eta ETBko eskaintza antzua, eta abar



IBON IZA
Irakaslea

eta abar...

Arrautzea sano gozoa da, baina biak behar dauz, bai gorringoa eta bai zuringoa be. Euskerea ez da munduko hizkuntzarik politena, ez da zoragarriena, baina geurea da, geu egin gaituena eta gerokoak egingo dituna.

En euskera no decimos "luna", decimos "ilargi", que más o menos se traduce como "luz de los muertos", and I think that's beautiful... kaka morralean! Erromantizismo gitxiago eta hasi gaitzean geure hizkuntzea egunero erabilten, zorrotzen eta geuretzen, holan gure seme-alabak be euskeraz sarritxoago egingo leukie eta.

Umean zentzune etxean entzune...

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Egonezina

Disonantzia kognitiboaren teoriak norberaren uste, pentsamentu eta portaeren arteko bateraezintasuna aztertzen dau. Personearen ezagutza eta portaeren arteko tensio edo desorekak eragiten dauan egonezina azaldu eta egonezin hori gaitetik astintzeko erabilten diran estrategiak arakutzen ditu, alegia.

Urtebete daroat nik, COVID-19aren pandemiak sortutako egonezinean murgilduta, ia-ia itota. "Non-nahiko pandemia" honetan ez naz bape be eroso sentiduten, egin, edo-eta, egiten ez dodana buruan darabildanean. Disonantzia kognitiboaren sindromearen muinean galduta nago.

Bitzita, nahiz gaixotasuna eta heriotzearen aurrean, bide bat edo beste bat, aukeratzeko askatasuna oinarizkoa da nire sinesmenen bilduman. COVID-19ko "izurrite" hau baino lehena, argi -ei- egoan, nire inguru ideologikoan behintzat: biziteko askatasuna, gaixotasunari aurre

egiteko tratamendua onartzeko edo-eta ez onartzeko eskubidea, heriotzeari duintasunez aurre egiteko eskubidea, -eutanasia barne-. Horrezaz gainera; erre-buelta giroan hazia eta aldarrikapenen munduan ibilia, jendar-teko harremana eta alkartasuna bizipozaren iturria dala, benetan, sinisten dot.

Oin barriz; ez dago aukerarik. Komunikabideak iltzatzen deuskuezan ideak iruntsi ezean, izugarrizko presioa soziala jasoteko prest egon behar da. Zientziaren izenean Inkisizino barria eratu da. Murrizte politika zalantzan ipinten dauana ukatzaile, ganorabako, berekoa... Sutara! amaitu dira kontuak... Halan be; Labik nahiz zientzia guruak xedatutako arauak bete eta zintzo izan arren, bekainak eta urteetan galdutako ulea be erre egin jata jada!

Teoriaren arabera disonantzia kognitiboa hausteko aukera bi ei dodaz. Bata nire sinismen bildumaren paradigmak aldatzea. Bestea, kalte handiagoak ekiditeko gaur eguneko neurriak onuragarriak dirala onartzea. Praktikan barriz, zaharregia naz nire sinismen sorta aldatzeko eta paternalismo zein tolerantziaren nagusitasunaren ikuspegitik ez bada, ez deutset ezelango onurarik topatzen giza eskubideak murrizteko politika edo neurriak.

Beraz, bide galdu honetan jarraitzen dot. Bidelagunik ete daukat?

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Iritsi da berriro ere eguna sartu ditu arropatxoak bere maletan eta horiekin batera ametsak hiru mila minutuko odisea aurretik jada milaka kilometro ditu erraietan idatzirik oroimenean finko nik, eskilara aldapatsuak dakusat berak, mila abenturako gaua.

Autobusak hamaika herri irentsi ditu orduen joan etorrian denbora ordea nekez doa aurrera burua ordea, ezin gelditu eta besoetan lo dudalarik ilea laztandu diot maite dut bere xalotasun usaina nola apaltzen duen nire egonezina kantu, kontu, jolas artean eta pentsatu dut noiz arte babestu ahalko dudan.

Bagoaz ziega txikien hotzera gorrotoz beteriko zaindari oldarkorren aurretik

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Hiru mila minutuko odisea

zama hori sumatzen bizkarrean berak ordea, inozentziak, irribarrez "egun on" esaten die.

Eta hor, leihorik gabeko gela antzuan begi zelatarien aurrean urtu gara muxu eta besarkada epelenetan laztan eta begirada xamurren artean ondoko gelako zantzo eta indarkeriaren oihartzunean zabaldu du bere motxilatoa momentu batez, horma idor horiek kolorez betez.

Baina hasperen eginda bukatu da gure momentua eta orain bai, besarkadak epelak dira, baina garratzak agurraren minean oinatzen lorratz goibelak pasabide hotzean utzirik goaz hosto bako zuhaitz biluziak baikin ikusten gaituztelarik gu bederen maitasunak loratuko gaitu eta eskuak dardarka, ubeldurak bihotzean bagoaz, aurrera begira berriro ere motxila ametsez betetzera.

BEGI TXINDORRA

Eraso matxista eta LGTBI fobiaren kontrako kartelak ipini ditue Arantzazu eta Arteako herri sarreretan. Igazko zemendian Arratiako mobimentu feministeak mozinoak sartu ebazan eskualdeko herrietan eskakizun bat eginez: herriko sarreretan eraso matxistarik ez zala onartzen adierazoten eban kartelak ipinteko.

Arantzazun eta Artean eraso matxisten kontra agertzeaz gainera, LGTBI fobiak ez daukala lekurik herri bi honetan adierazo dabe herri sarreretako karteletan. "Aproposa iruditu jakun apur bat harago joatea eta eraso matxistak ez onartzeaz gainera, LGTBI kolektiboak bizi dauan egoerea salatu eta kolektibo hau babestu gura genduan" Arantzazuko alkatearen esanetan.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Uriagotia Aldekoa
Odonologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elizkole, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 908 864 018

TERRITZOKA
Igorriak
gaurik
ezazu!
Lanbideari Agere 10
Igome

Bizkaian dagoan hizkuntz ugaritasuna erakusten dauan azterketea egin dau Bizkaiko Foru Aldundiak

Azterketa horren arabera, Bizkaian 120 hizkuntza baino gehiago egiten dira. Euskera eta gaztelaniaz gainera, hizkuntza nagusiak, galegoa, arabiera, tamazight-a eta errumaniera dira. Bilbo Handian eta Arratia-Nerbioin gehien egiten diran hizkuntzak arabiera eta tamazight-a dira (Maroko eta Aljeria): atzerritar jatorriko biztanleen %32 eta %49,9ren hizkuntzak dira, hurrenez hurren.

Erredakzioa

Zezeilaren 19an aurkeztu eban ikerketea Lorea Bilbao Euskara Kultura eta Kirol foru diputaduak, Xabier Aierdi soziologoa eta Belen Uranga soziolinguistegaz batera. Foru Diputaduen arabera, "euskeratik eta euskeraz, hizkuntza guztien balioa aitortzea da gure helburua ikerketa hau egin eta partekatzean". Euskera eta gaztelereaz gain, badirala hiru hizkuntza 10.000 hiztun baino

gehiago dituenak Bizkaian, eta 1.400 hiztun baino gehiago dituen beste zazpi hizkuntza dagozala esan eban. "Ez dogu euskeraren etorkizuna gainontzekoak baztertuta edo ukatuta eregi gura, sendo gura dogu euskera, baina guztienganako errespetuan eta guztiengandiko errespetuan, euskerearen lurraldeetan, guztion aterpe legez eta guztion arteko zubiak eregiz, inorena ezkutatu barik, alkarrenganako errespetuan eregitako aniztasunean".

Hizkuntza ez ofizialen presentzia

2019. urtean Bizkaian 115.686 biztanle ziran jatorria atzerritarra eukena, biztanleriaren %10. Horreetatik 93.878 biztanle (%81,1) dira hogei estatu nagusiatik etorritakoak.

Hiztun gehien dituen hamar hizkuntzek 1.400 hiztun baino gehiago daukie eta, horreetako hiruk, 10.000 biztanletik gora. Gaztelania aparte itxita, espainiar estaduko beste hizkuntzak presentzia handia

daukie Bizkaian: 25.697 biztanle daukie galiziera jatorri hizkuntza gisa eta katalana 7.018 biztanle.

Arabiera eta tamazight jatorri hizkuntza lez 13.435 biztanle daukie. Jatorria Portugalen edo Brasilen daukien biztanleak, barriz, 5.793 dira eta portugesa da euren jatorri hizkuntza. Bizkaian, errumanierazko 11.119 hiztun dagoz; mandarin txinera edota kantonera 4.159; frantse-

sa jatorrizko hizkuntza daukien 2.529, baita Senegalen jatorria daukien wolof, fula edota serer hizkuntzako hiztunak (hiru horreen artean 3.259). Nigeriatik etorritakoak joruberea, igboera eta hausa hizkuntzak ditue, guztira 1.877 hiztun eta Pakistanetik etorritakoen hizkuntzak, urdu eta punjabera 1.477 hiztun.

Jatorri lurraldeetako hizkuntza ez ofizialak be, presentzia daukie.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Ikuspegi feministako ekintzak hileon

600 persona inguru batu ziran Arratia, Ubide eta Zeberion martiaren 8an zaintza sistema publikoa aldarrikatzeko. Arteako andra taldeak Kafrangak izena hartu dau.

Erredakzioa

Arratiako mobimentu feministek deituta, martiaren 8an, arratiarrak herrietako plazetan batu ziran "dana aldatu" eta sistema arrakalatu eskatzeko. Konzentrazio eta manifestazioetan ikusi ziran beste lelo batzuk be: "Indarkeria matxistaren aurrean zerbitzu publikoak indartu", "Indarrak batuz berdintasuna bultzatuz" edo "Emakume presoak etxera" besteak beste. COVID-19aren neurriak dirala-eta, konfinamentu perimetrala indarrean, artean herri mugakideetara baino ezin zan joan eta aurreko urteetako Arratia mailako manifestaziorik ez zan egin. Ha-ta guzti be, 600 persona inguru batu ziran herrietan zaintza sistema publikoa eta sistema aldatu beharra aldarrikatzeko.

Kafrangak

Artean, konzentrazioa egin ostean, andra taldekoak, "izena daukana badala" eretxita, taldeari Kafrangak izena ipini deusiela jakin arazo eta aurkezpena egin eben. "Eretxi propioa daukan andra, bere ustea ozen eta irmo



Arteako konzentrazioa.

adierazoten dauana, kafrangea ei da. Askatasuna ostuten deuskun mendeetako estigmatizazioa urratuten goaz" esan eben izenaren nondik norakoak azalduteko. Izena oin hartu arren, ibilbidea badauka andra taldeak. "Badira 6 bat urte Arteako andra taldea sortu zana. Hainbat aldarrikapen, hainbat burruka eta hainbat behar egin izan da urteotan" esan eben.

Hile osoan kultura jarduerak

Talde feministak, andra taldeak, erakundeak eta alkarteak ikuspegi feministako ekintzak antolatu ditue hilean zehar, lehenengo hamabostaldian hasi eta hilea amaitu arte luzatuko diranak. Martiaren 8aren inguruko egitarauari, andren burruka gai hartzean daben beste ekintza kultural batzuk gehitzen jakiez; esate baterako, martiaren

20ko, Igorreko umeentzako txo-txongilo antzerkia, XX. mendeko hasieran, Londoneko ehungintza tailer baten inspiratutakoa.

Arantzazu

Martiak 26, barikua

19:00etan, *Erradikalak* ginen Kultur Gunean.

Areatza

Martiak 17, eguaztena

18:30ean, Bardintasun Diagnostikoaren aurkezpena. Ondoren, Zapalduen Antzerki Konpainiaren *Egunon!* antzezlanaren Udal Areatoan.

Artea

Martiak 18, eguena

18:30ean, *Euskal literatura eta emakumeak* mahai-ingurua, Kati Agirre eta Alaine Agirre idazleak. Kultur Etxean. Gidaria: Bea Azpiri.

Martiak 20, zapatua

18:30ean, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatu. Bertsolariak, Nerea Ibarzabal, Uxue Alberdi eta Miren Artetxe. Gai emolea: Maite Berriozabal. Frontoian.

Martiak 25, eguena

17:30ean, zineforuma, *El hilo de la luna* filma Kultur Etxean.

Dima

Martiak 27, zapatua

18:00etan, Andraizea taldeak

antolatuta, Naizen alkarteko kide batek, *Trans-formatzen* berbaldia emongo dau. Eskolako kamaran.

Igorre

Martiak 20, zapatua

18:00etan, Anita Maravillas konpainiaren *Kotondarrak* titere antzerkia Kultur Etxean.

Martiak 23 eta 30, martitzenak

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahalduntzea argazkilaritzaren bidez* ikastaroa Adirane Azkuenagagaz Kultur Etxean.

Lemoa

Martiak 24, eguaztena

19:00etan, berbaldia *¿Qué es el racismo? Aclarando términos supuestamente sencillos*. Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

Zeanuri

Martiak 16, martitzena

18:00etatik 20:00etara, *Bazen behin... euskal matriarkaduen mitoa* tailerraren bigarren saioa udaletxe azpiko gelan.



UBIDE/ZEANURI

Alegazinoak sartu deusaz Ubideko Udalak Zeanurik egindako larreen araudiaren aldaketari

Zeanuri eta Ubide larreen mankomunidadeko bazkalekuen gaineko araudian hainbat aldaketa egin ditu Zeanuriko Udalak.

Erredakzioa

Testuak, behin-behineko onarpena izan eban Zeanuriko osoko bilkuran eta oin alegazinoak sartzeako fasean dago. Ubidek alegazinoak sartu ditu, bere ustez udal bien artean adostu behar dalako edozein aldaketa.

Aldaketok, beste gauza batzuen artean, Gorbeialdeko osasun planari egokitzeko dira. "Gorbeialdea sartuta dago osasun plan baten eta ez daiten arazorik egon beharrezkoak dira aldaketok, ze egia da gero eta gaixotasun gehiago agertuten dirala abereetan" azaldu deutso BEGITURI Iñaki Beobi-aldaketen edukian, udal bien artean ez diralako egin sartu dabez alegazinoak. "Guk ulertuten dogu normatibea aldatu behar dala baina bion artean aldatu behar dala uste dogu. Aldatu edo adostu..." azaldu deutso BEGITURI Iñaki Beobi-aldaketen edukian, udal bien artean ez diralako egin sartu dabez alegazinoak. "Guk ulertuten dogu normatibea aldatu behar dala baina bion artean aldatu behar dala uste dogu. Aldatu edo adostu..." azaldu deutso BEGITURI Iñaki Beobi-

aldaketen edukian, udal bien artean ez diralako egin sartu dabez alegazinoak. "Guk ulertuten dogu normatibea aldatu behar dala baina bion artean aldatu behar dala uste dogu. Aldatu edo adostu..." azaldu deutso BEGITURI Iñaki Beobi-

Larreen gestinoa

Larreen gestinoan dago auzia. Izan be, Zeanurik ulertuten dau erabilerak eta lurak emoten dauzan etekinak dirala bienak, baina Zeanuri dala lurren jaubea eta beraz berari jagokola gestinoa. "Lur horreek Zeanuriko Udalarenak dira. Amankomunazgoa erabilereari buruz edo lur horreek emoten dabez frutuari buruz da, baina ez gestinoari buruz" dino Zeanuriko alkateak. Eta larreen gestinoa Zeanurik egin dauala beti dino. "Nik begiratu dodaz aktak 1980 urtetik honakoak eta ordenantzea

beti eroan dau aurrera Zeanuriko Udalak, baita pastuen gestinoa be. Eta Zeanuriko Udaletik aparte hor egin diran lanak, Zeanuriko Abeltzain Elkarateak egin dauz. Guk argi daukagu Zeanuriko Udala dala lur horreen jaubea eta lur horreen gestinoa aurrera eroaten dauana".

Ubiden barriz, udal biai jagokiela uste dabe eta alegazinoetan "aprobexamentu arauak udal bien artean erabakitzea; Bizkaiko zuzenbidearen arabera mendez mende onartu, baliatu eta burututako ohitura (araua) betez" egin behar dala dinoe.

Gatazkak eta akordioak

Kontua aspalditik dator. Ubide eta Zeanuri 1540. urtean banandu ziran eta akordio bat egin zan, Ubideko pastoreak Zeanuriko larreetan ibili ahal izateko eta Zeanurikoak Ubiden. Gatazkak be egon ziran eta epaileak epaiak emon ebezana 1542, 1790 eta 1870ean alkardetzearen aldekoak eta 1904an arbitrai laudoa.

Aspaldi honetan, 2006tik 2017ra, Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen Zeharkaldia antolatuten eben alkarlanean. Ekintza honek arrakasta handia eukan eta Bizkaiko leku askotatik etorten zan jentea herri bien arteko ibilaldia egiten. Ostean, mende bat baino gehiagoko ohitureari jarraituz, kontuen kitapena egin eta "bazka-larreen inguruko bakea" sinatuten eben herri bietako udal ordezkariak, ekitaldi sinboliko baten.

ARTEA

Banderea estreinau eta Gernikako Arbolaren oinordeko bat landatu dabe



Erredakzioa

Martiaren 12an, Maurizia pandero-jolearen eta Leon albokariaren eskulturearen ondoan Gernikako Arbolaren oinordekoa, 10 urte eskaseko haretx gazte bat landatu eben. Ekitaldian, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, Alberto Intxaurrea Goti Arteako alkatea, zinegotziak, herritarak eta eskolako umeak egon ziran landatzeko ekitaldi ofizialean. Ekitaldiaren aurretik bandera barria altau eben udaletxe aurrean.

Gernikako Arbolaren oinordekoak mundu zabalean dagozala ekarri eban gogora Otadui eta oin "Artea be gehitzean da zerrrenda horretara". Berak, udal

ordezkariak, herritarak eta umeak landatu eben haretxa danon artean, eta txistulariak eta jantzariak be ez ziran faltau ekitaldian.

Amaitukeran, landatutako haretxa Gernikako Arbolaren oinordekoa dala bermatzen dauan ziurtagiria jaso eban alkateak.

Bandera barria

Arteko Udaleko bandera barria onartu zan udalbatzan eta oin tramitean dago Bizkaiko Batzarretan. Gernikako Arbolaren oinordekoa landatzea, hori ospatuteko modua izan zan. Horregaitik, ekitaldiaren aurretik, Arteko bandera eta ikurriña altau ziran udaletxe ondoan. Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria be egon zan Arteko banderaren lehenengo altzaldian.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrietan mobidutea baimenduta dago martiaren 9tik

Erredakzioa

Martiaren 5ean, Labik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrien artean mobidutea baimendu eban Euskadiko Babes Zibileko Planaren Aholku Batzordeak (Labi). Ha-ta guzti be, indarrean hilaren 9an sartu zan. Gainontzeko neurri murriztaileak mantendutea ebatzi eban.

Ordura arte, herri mugakideetara bakarrik joan ahal zan, baimendutako jarduera batera eta hori justifikau. Martiaren 9tik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik mobidu daiteke ezer justifikau behar barik eta Urkullu Lehendakariak adierazotakoaren arabera "Eusko Jaur-laritzak ez dau gehiago erabiliko 500 kasuren inzidentzia tasa udal-erri batzuetan neurriak zorrotzeko erreferentzia gisa".

Dekretuak lehen aldiz jasoten dau be COVID-19aren agerraldiren

bat dagoenean baheketak egingo dirala; besteak beste, transmisio komunitarioa daben auzoetan, zentro soziosanitarioetan, ikastetxeetan, etxebizitza blokeetan...

Horrez gain, eta barritasun lez, dekretuak establezimentu eta erabilera publikoa daben leku itxi guztiak aireztatu egin behar dirala jasoten dau.

Gainontzeko neurriak indarrean

Egoera epidemiologikoak hobera eginda egon arren, etxeratze aginduak indarrean jarraituten dau 22:00etatik 06:00retara. Merkataritza eta kultur jarduerak 21:00etarako amaitu behar dira.

Ostalaritza 20:00etan zarratu behar dau, ezin da barran konsumidu, mahaietan baino, eta ezin dira mahaiak bata bestearen ondoan ipini. Gehienez, lau pertsonako taldeak dagoz baimenduta.



ARANTZAZU/AREATZA/IGORRE/LEMOA

Menpekotasuna daukientzako laguntza teknikoen mailegu zerbitzua emongo dabe

Arantzazu, Areatza, Igorre eta Lemoako Udalak Gaurko Nagusia fundazioagaz hitzarmena sinatu dabe Laguntza Teknikoen Bankua herritarren zerbitzura egon daiten.

Laguntza Teknikoen Bankua, menpekotasun edo mobitzeko zailtasunak daukiezanai laguntza teknikoak maileguz emoteko zerbitzua da.

Erredakzioa

"Udal bakotzak kuota bat ordainduko dau urtean eta kuota horren truke zerbitzu batzuk izango doguz. Persona batek zerbitzu horreek behar ditueanean, udal txera etorri eta gizarte langileak balorazino bat egingo dau. Balorazino hori alkartera bialdu eta alkartetik terapeuta bat bialduko dabe" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak.

Laguntza teknikoak

Fundazioak, laguntza teknikoen katalogo bat dauka. Bertan etxean erabilteko ohe artikuladuak, garbiak, eskaren kontrako koltxoiak eta higiene aulkiak topau daitezke, beste batzuen artean; eserleku birakariak, eskudelak, mobimentu sentsoredun alarmak eta abar, lagungarriak dira etxean moldatzeko; gupil aulkiak, makuluak... eta beharizana daukan personari eta bere zaintzaileari laguntzen deutseen beste laguntza tekniko asko hartu daitezke maileguan

udal txeran eskatuta.

"Guk biltegia daukagu eta laguntza teknikoen mantenimendua eta garraioa antolatuten dogu. Jenteari zelan erabili be irakasten deusagu. Terapeuta okupazional bat be badago etxeetara joaten dana beharizanak balorau eta laguntza teknikoak erabilten irakasteko" azaldu deutso BEGITURI Ines Venero Gaurko Nagusia fundazioko lehendakariak.

Bankua hornidutako donazino kanpainak antolatuten dabez. Menpekotasunerako laguntza teknikoak emoten daben tresnak emon gura izan ezkeru, udaleko gizarte zerbitzuari jakinarazo behar jakie. Gailuak berrerabilteko moduan badagoz, Laguntza Teknikoen Bankuak jaso, prest ipini, garbitu eta maileguz emoteko funtsan sartzean dauz. Izan be, baliabideak aprobetxetea dauka oinarri zerbitzuak, eta horretarako, erabilten ez diran laguntza teknikoak jaso eta behar dauanaren eskura ipinten ditu fundaziokoak.



Asier Garcia, Asier Aburto, Saioa Elejabarrieta eta Illart Gumuzio alkateak eta Ines Venero Gaurko Nagusia fundaziokoak.

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetu poligonoa, 10 LEMOA • beerredakzioak@gmail.com

DIMA

Marihuana plantazino baten ustezko arduraduna atxilotu eban Ertzaintzak

28 urteko gizon bat atxilotu eban Ertzaintzak martiaren 2an, osasunaren kontrako delitua eta argindarragaz iruzur egitea leporatuta, Dimako baserri baten, 2.000 marihuana landare eta 3.000 aldaxkako plantazino bat topau ostean. Atxilotutakoa, baserriaren errentaria da.

Erredakzioa

Ertzaintzak jakitera emondakoaren arabera, igazko garagarrean "Ertzaintzak jakin eban Dimako baserri baten legez kanpoko jarduera bat egiten zala, eta ikerketa bat abiatu eban etxea alokatuta eukan gizona identifiketako eta aztarna batzuk lortzeako.

Bairudian eraikina marihuana plantazino bat manteniduteko erabilten ebela". Hori dala-eta, martiaren 2ko arrastian "agertu ziran bertara ikerketearen arloko agenteak Durangoko Epaitegiko Segizio Judizial bategaz. Baserriari sartu ziranean, ertzaintzak eta arduradun judizialak, lehenik eta behin, eraikina alokatuta eukan

gizona, 28 urtekoa, aurkitu eben. Gero sotoan marihuana plantazino bat aurkitu eben, guztira bi mila lorontzi inguru egoazan eta zurtoinak bakarrik geratzen ziran. Sotoak era horretako plantazino batek behar dituan elementu guztiak zituan, esaterako, bero eta argi sistema, aireztatze eta urreztatze sistema, eta abar".

ZEANURI

Eguzkiola alkartearen lokala zarratutako agindua emon dau Zeanuriko Udalak

Erredakzioa

Martiaren 8an, Eguzkiola Kultur Elkartek, alkatetza dekretu baten bidez, lokala zarratutako bigarren agindua jaso eban. Lehenengoa, abenduaren 1ean jaso eban. Plazea 5eko Eguzkiolako lokala zarratutako agindua emoten da, jarduerarik ezin izango dala garatu adierazoz. "Jarduerak garatzeko Ardigesten txostenean jasotako neurri zuzentzaileak eta Jendeaurreko Ikuskizuna eta jolas jardueren Legean eta bere Dekretuan 17/2019 bete beharko dira" irakurri daiteke alkatetza dekretuan.

Alkartekoak, eskatutako eskakizun tekniko guztiak beteteko ahaleginetan dabizala dinok komunikatu baten. "Eskariak gehigizkoak dirala uste dogun arren, ez dogu itxiko errazoi tekniko-burokratiko batzuen atxakipean gure jarduna baldintzatu dagien. Gitxiago gure lokala horren errez itxi dagien. Egoera honek zoritxarrez denpora eta diru asko eskatzen dau".

Lokala erabili ezin duan bitartean, Eguzkiolak beste jarduera batzuk egiteko asmoa agertu dau; Youtube kanala, kanpoko ekintzak eta alkartasun kanpainak, hain zuzen be.

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14
eta
649 979 112

begitu

Publizidadea:
649 979 115

✉ begitu@topagunea.com

🌐 www.begitu.org

ZURIÑE GARCIA

"Inoz oinarritzko sukaldaritzea amaitzen bada, sukaldaritzea bera amaituko da"

Sukaldari ezaguna da Zuriñe Garcia Garcia Igorrekoa. Galdakaoko ostalaritza eskolan ikasi eta gero, Michelin izarra daukan Andra Mari jatetxean hasi zan beharrean, oin dala 21 urte eta atzen 10 urteotan, sukaldariburua da, chef-a. Sukaldaritzea tradizionalan oinarrituta eta sasoiko produktuakaz, ikutu barrizalea daukien platerak ditu gustuko. Ostalaritzeak bizitzarako gauza asko irakasten dituala dino baina momentu gatxa dala, eta ABEEak (Aldi Baterako Erregulazino Espedientea) amaitutakoan, jatetxe askoren etorkizuna ez ete dan arriskuan egongo bildur da.

Erredakzioa

Urte asko daroazuz jatetxe berean, hori ez da ohikoa ostalaritzan.

Ez, ez da ohikoa. Ostalaritzan joan-etorri ugari egoten dira eta nik sukaldari askogaz egin dot behar. Eneko Atxagaz, berbarako. Andra Mari jatetxean sei urtez egin eban behar eta nire nagusia izan zan. Andoni Arrieta Dimako sukaldariak be egin eban behar hemen. Jente asko pasau da hemendik. Oin, apur bat egonkortu egin da, ez dago hainbeste jente aldaketa. Nire lankide batek 10 urte daroaz nigaz; beste batek 8 eta besteak ia 4 urte.

Michelin izarra 1983tik dauka. Gatxa da lortzea baina oindino gatxagoa eustea. Ez da bakarrik ondo jaten emotea. Hori be bai, jakina! Baina beste gauza asko baloretan dira. Giroa inportantea da; baita janlekua eta komunak be. Jatekoa, ardaoa... osotasuna eta eguneroko lana dira inportanteenak. Sukaldaritzari jagokonean, sasoiko produktua erabili eta puntuan prestatu behar da. Probak egin behar dira eta gainean egon. Etxean, liburuak irakurri eta internet konsultau, egunean egoteko.

Guk sukaldaritzea tradizionala

Michelin gidan,
jatearearen filosofia
baloretan da. Ez da
esaten zer egin behar
dozun izarra lortzeako

egiten dogu autore ikutuagaz. Oin hainbeste aldatu dira izenak! Oin sukaldari nagusiari chef deitzen jaku. Edo chef ejekutiboa. Egia da modernizau ala hil, beste aukerarik ez dagoala eta chef esan behar bada, chef esan eta kito. Baina betiko sukaldariburua da.

Nire ustez sukaldaritzea mota bi dagoz. Bata, bizitzari, elikatzeari, osasunari eta ekonomia txikiari dago lotuta. Hau da beti andrak egin izan dabena. Bestea, gizonetzkoena, chef-ak egiten dabena, "sorkuntza lan" izentatzen dabena eta aisialdiagaz lotuta dagoana. Zuk ze sukaldaritzea mota egiten dozu?

Tarteko bat. Nik txikitari amari laguntzen neutsan suetea. Ama eta amama sano sukaldari onak ziran. Niri sukaldaritzea gustetan jatan, beste barik. Gero ikasketak egin eta gogor egin dot lan urte askotan. Oin, urte asko pasau diranean eta preguntetan deustenean zergaitik dagoz hainbeste gizon eta hain andra gitxi jatearetan sukaldariburu, ez dot jakiten zer erantzun. Askotan, andra sukaldari onak sukaldariburu izateko jateareta euren edo euren familiarena izan behar dau.

Ni ez naz laborategikoa dirudian gastronomiaren aldekoa. Ez nago kontra, baina nik ez dot hori sukaldatuko. Denporak aurrera egin ahala ikusten dozu bitsak eta keak gauza sinpleak dirala, lehen ikaragarriak emoten bae-ben be. Sifoi bat euki eta erabiltzen jakin behar dozu, besterik ez. Baina atzenean, oinarritzko sukaldaritzea amaituten bada, sukaldaritzea bera amaituko da.

Eta zein da oinarritzko sukaldaritzea?

Betikoa. Oin dala 50 edo 100 urte egiten zan ha: babak, lentejak... Baina askotan, izen handiko jatearetan praktikak egindakoak datoz ikasten eta ez dakiez lenteja batzuk prestatzen. Hori da oinarria eta hori egiten jakin behar da. Gero egin zeinke gura dozuna, "amarruak". Esate baterako, betiko babak odoloste, txorizo eta hirugiharragaz nik egin neikez, odoloste krema bategaz eta txorizo bitsagaz eta hirugiharra plantxan markauta temperatura bajaran. Baina horretarako, lehenengotik, oinarritzko sukaldaritzea behar da; betikoa ez badakizu ezin dozu ezer egin. Eta betikoa galtzean bada, arazo bat daukagu.

Michelin gidan, jatearearen filosofia baloretan da. Ez da esaten zer egin behar dozun izarra lortzeako. Ez dago sukaldaritzea modu bat, edo produktu batzuk erabili beharra bertan egoteko. Filosofia bategaz dago lotuta.

Euskal Herrian ondo jaten da. Hori holan da?

Bai, nik uste dot oso ondo jaten dala hemen. Turismo asko be etorten da gure gastronomiagaitik. Baina leku bakotzak dauka bere enkantua eta bere gastronomia. Duda barik, hemen ez doguz paellak Valentzian bezain ondo egingo...

Hemen, lebatza, ezta?

Esate baterako, bai. Itsasoa hur daukagu eta oso produktu ona daukagu. Gero aukeratzeko jakin behar da eta produktuagaz lan egiten.

Jaten be ikasten da eta nik daukat sensazioa hori gal-





tzean gagozala. Sukaldatzeko denporea behar da eta gizarte honetan beti gabiz presaka eta lanpetuta. Gainera eskura daukaguz modu industrialean aurrez prestatutako jateko asko.

Bai. Orokorrean hemen ondo jaten bada be, badago jentea txarto edo oso txarto jaten dauana. Nik neuk be egun librea daukadanean, edozer jaten dot. Ez dot jateko azkarra deitzean dan hori jaten ez jatalako gustetan baina ez naz hasten gisauak egiten.

Jatetxean osasunari lotutako proiektu bat abiatu dogu, zelanbaist irisgarriago egiteko, dantozako jatekoa egon daiten: barazkijaleentzat, alergiaren bat daukienentzat, zeliakoentzat... Horreek gauzok kontuan hartutako menuak prestatzen doguz. Eta, barazkijaleai esate baterako entzuten deutsezu aspertuta dagozala jatetxeetan beti ensaladak jaten, eta pozik hartzean dabe menu bat aukeratu ahal izatea.

Jatetxe txikietan gatxa da aukera guztiak emotea baina lanean gabiz.

Estresauta bizi gara, osasuna jagoteko modu bat slow food deritxana izan leiteke?

Slow food ez da bakarrik jateko osasuntsua jaten ikastea, beste gauza asko be badira: lasai ezarrita egotea, telebisinoa amatauta eukitea, koilara txikiak erabiltea mokaua txikerragoa izan daiten, sasoiko produktua erabiltea, ortutik zuzenean ekarritakoa... Ura be inportantea da, baina hemen ur ona daukagu. Bilboko ura.

Hainbat eskolatak ikasleak egoten dira jatetxean praktikak egiten, ezta? Zelan goa izaten da harremana?

Bai. Sukaldaritza eskola guztietakoak etorten dira, EHU eta Galdakao, Artxanda, Gamarra eta Peñascal-eko eskoletatik. Eskola bakotxeko bat hartzean dogu, ez dogu gura izaten ikasle asko batera eukitea. Nik beti esaten deutset aprobetxetako. Badakit

eskolatik ez datozala ikasita etorten: han oinarria ikasten dabe baina ikasteko egin egin behar dabe, praktikau. Nik gauza bat zortzi bider azaldu ahal dot baina bederatzigarrena ez. Orduan beste zeozertan ipinten dodaz. Batzuek ikastea baino titulua atera gura dabe. Eta beste batzuek esfortzu barik eta lan gitxi eginda, eta hori ezinezkoa da ostalaritzan. Ostalaritzan lan asko egin behar da aurrera egiteko.

Danetik dago, ha-ta guzti be eta lan hau benetan gustetan jakienak be bai.

COVID-19aren kontrako neurriak eragin handia izan dabe ostalaritzan. Aldaketa honeetatik zeintzuk izango dira be-

hin-behinekoak eta zeintzuk behin-betikoak zure ustez?

Honek min handia egingo deusku. Ez dakit honaino eroan gura ginduzan ala ez baina gauza asko aldatu dira. Nik uste, hurrengo 10 urteetan gertatzekoa zan aldaketea, dana batera gertatu dala. Abiadura ikaragarria hartu dau! Eta nik uste bizitzan gauzak apurka-apurka egin behar dirala.

Dana online izango da, dana etxetik. Joera hori baegoan. Aplikazio ugari sortu dira jateko eskatzeko. Produktuak eskatzeko be bai. Ez dakit hori gure onerako izango dan ala ez, konturatuko gara, hasi baino ez da egin eta.

Pentsetan dot jatetxean ez dogula askorik igarriko momentuz.

Hainbeste denpora urten barik, jentek urteteko gogoia eta premina dauka. Etorkizunera begira ez dakit, baina momentuz jentek gurago izango dau jatetxera etorri, etxera eroandakoa jatea baino.

Baina dana internetez bada, lan gitxiago egongo da, dendak zarratu egingo dira...

Oin, zatikako ABEE bat daukagu. Baina ABEEak amaitzen diranean, lehengo moduan itxi beharko deuskue, barruan aforoaren %50agaz ezinezkoa izango dalako askorentzat jatetxea zabalik mantendutea. Janlekuan, mahai erdiak daukaguz eta gero be, jentea seguruago sentidu daiten holan jarraitutea gurako geunke baina ez dakit posible ete dan.

**SAN JOSETAKO
BERTSO SAIOA
IGORREN**

2021eko martiaren 19an
19:00etan

Miren Amuriza
Lasarte aretoan
Uxue Alberdi
Unai Iturriaga
Sustrai Colina

IGORREko Udala
Igorreko Kultur Etxea Lasarte Aretoa

MENDIA

Martiko erronka, Leungane

Arantzazuko Arginatx Mendi Taldeak, COVID-19a dala-eta osasun egoera eta hartutako neurriakaitik mendi urtekerak ezin diranez talde handian egin, hile bakoitzean mendi batera igon eta argazkiak euren WhatsAppera bialtzea sare sozialetan ipinteko proposatu deutse mendizaleai.

Erredakzioa

Ha-ta guzti be, egoera aldatu ahala, egokitzen joango dirala jakinarazo dabe mendi taldekoak. Zezeilean Mandoiara igon ziran eta martiko erronka Leungane da. Urte amaieran tontor gehien egin dabenen artean sari bat zozketatuko da.

Gainera, Strava sare sozialean klub bat sortu dabe, galapan edo oinez egiten dabenezat. Partaideak, Strava aplikazioan erregistrauz, galapan edo oinez egiten dabezan kilometroak publikatu eta danen artean, 2021ean "munduari buelta oso bat emoteko besteko distantzia" egitea hartu dabe erronkatzat.



Bazkideak egiteko kanpaina Arginatx taldeak bazkideak egiteko kanpaina bat ipini dau martxan. Taldea 2010. urtean sortu zan "Arantzazuko herritarren mendi grina asetzeko" eta herritarrak

alkartzeko. Harrezkerotik 100 bazkide baino gehiago bildu dira taldera eta 200 mendi baino gehiago igon dabez. Urtero egutegi bat egiten dabe urtekerak proposatuz eta hilean behin biltzean dira mendira joateko.

FUTBOLA

Lau partidu segiduan galdu barik Arratiak**Erredakzioa**

Arratia taldeak partidu bat jokatu dau martiako lehenengo hamabostaldian.

Martiaren 7an San Ignacioren kontra jokatu eban Urbietan eta

2-1 irabazi eban, lehenengo zatian jokalaria bat gitxiagogaz gelditu arren. Arratiak, atzen lau partiduetan garaipen bi eta bardiaketa bi lortu ditu, hobekuntza itzela arratiarrena.

Datorren partidua, ligako lehen zatiko atzena, martiaren 20an 16:00etan jokatu dau Arratiak Aurrera de Vitoria taldearen kontra Gasteizen.

Arratia, hamahiru jardunaldi jokatu eta gero, sailkapeneko atzen postuan dago bederatz puntugaz datorren jardunaldiko aurkariagaz bardinduta.



Arratia eta San Ignacioren arteko partidua.

MENDIA

Mendifilm zinemaldiko sari nagusia jaso eban pelikulea Igorreko Kultur Etxean

Aurten be martxan ipini dau Ganzabal Mendi Taldeak Mendi Amesgarriak zine emonaldia 2020ko Mendi Film jaialdiko onena Igorrera ekarriz.

Erredakzioa

Martiaren 18an, 19:00etan, jaialdiko Sari Nagusia *Hillary – Ocean to Sky* eta sail ofizialeko *Charge 2* film laburra ikusteko aukera egongo da Lasarte Aretoa.

Michael Dillon-ek zuzendutako *Hillary – Ocean to Sky* film australiarra, Edmund Hillary-ren atzen espedizio handia kontetan dau: ozeanotik abiatu eta Ganges ibai sakratuan gora motordun txalupetan eginiko bidaia, Himalaiako Akash Parbat mendi tontorra bataiatzen amaituteko. Andrea eta alaba gazteena hezagkin istripu baten hil barritan, Hillary, dolua gaintzeko bidean abiatu eta bizitza bera galtzeako zorian izan zan. Talde kementsuaren babesa euki eban, bere semea Peter-ena, tartean.

Aurretik, Anthony Bonelloren lau minutuko *Charge 2* film kanadiarra egongo da ikusgai. Stan Rey, Leah Evans, Alexi Godbout, Josh Daiek eta Drew Petersen eskiatzaileak Monashee mendietan egindako ibilbidea erakusten dau.

Lehenengo saioa

Martiaren 18koa, aurtengo Mendi Amesgarrien saileko bigarren saioa da. Lehenengo aurreko astean izan zan eta bertan, *Arriesgarse a vivir*, *L'escalade*

Libérée eta *Everest – The Hard Way* filmak ikusteko aukera izan eben Lasarte Aretora hurreratu ziranak.

PELOTEA

Ez Amaia Alday, ez Ainhoa Ruiz de Infante, ez dira sailkatu finalerdietarako**Erredakzioa**

Eskuz Binakako Master Laboral Kutxa 2021ean, parte hartu dabe Amaia Alday Dimakoak, Gentzane Aldai bikote ebalu, eta Ainhoa Ruiz de Infante Txumuluxeta Pelota Klubekoak Arrate Bergaragaz batera. Ezin izan ziran finalerdietarako sailkatu, martiaren 6an Asteasun partiduak galdu ostean.

Amaia Aldayk eta Gentzane Aldaik, Irantzu Etxebeste eta Olatz Ruiz de Larramendi izan ebezan aurrez aurre. 22-21 galdu eban eta nafarrak atzen momentura arte sufridu behar izan eban partidu irabazteko.

Olatz Arrizabalak eta Naroa Agirrek barriz, ez eben asko sufridu behar izan Ainhoa Ruiz de Infante eta Arrate Bergarari irabazteko; atzen

emaizta 22-4 izan zan eta. Asteasuko pelotalekuan, Ruiz de Infante eta Bergarak ez eben euren jokoa erakusteko aukerarik izan.



Arrate Bergara eta Ainhoa Ruiz de Infante.

PELOTEA

Danel Elezkano eta Oier Etxebarria euren txapelketetan lehen postuan



Danel Elezkano.

Erredakzioa

Elezkano II.ak eta Zabaletak Mungian jokatu eben oin arteko azken partidua martiaren 12an Artola eta Arangurenen kontra 22-3 emaitzeagaz. Aurreko partiduan, martiaren 7an Eibarren jokaturakoan, Altuna III. eta Mariezkurrena II.aren kontra 19-22 galdu eben arren, liga profesionaleko sailkapenaren lehenengo postuari eusten deusie 9 partidu irabazita.

Promozino mailako txapelketan be, Oier Etxebarria Igorrekua eta Salaberria sailkapen buru dira 9 partidu irabazita. Atzena Iruñean jokatu eben martiaren 6an, Elordi eta Garmendiaren kontra, 10-22 irabaziz. Azkenurrekoa galdu egin eben Dario eta Erostarberen kontra Larrabetzun 22-20. Ha-ta guzti be, txapelketan partidu gehien irabazi dauan bikoa da Oier Etxebarria eta Salaberria eta sailkapenean lehenengo postuan dagoz.



Oier Etxebarria.

MENDIA

Tontorrik egin ez arren, balorazino ona egin dau Alex Txikonek

Manaslu-EKI espedizinoa amaitutzat emon dabe Txikonek eta bere espedizinoakideak, guztiai "sapore ona" itxita.

Erredakzioa

Manasluko gailurrera (8.163 metro) igotea lortu ez arren, hur egon dira eta danak etxera bueltau dira. Gainera, EKI Fundazioaren, Energiaren Euskal Erakundearen eta Iñaki Ochoa de Olza-SOS Himalaya Fundazioaren eskutik, Makalu eskualdean estazino fotovoltaiko bi instalau dabez eta eguzki energiagaz funtzionetan dabezan bonbillak banandu dabez.

Gauzak gatz egon ziran hasikeratik. Espedizino taldeak ibilbide barri bat inprobisau behar izan eban C1 eta C2 artean arrakala handi bat topatzean. Horrek atzera egin arazo eutsen eta planak aldatu behar izan ebezan. Eskoitik beste bide bat zabalduetea ebatzi eben eta Simone Moro, Iñaki Alvarez eta Namja, Gelum eta Cheppal sherpen artean, altuera irabazten jarraitu ahal izan eben. "Material asko igo behar izan genduan garririk gorako edurragaz, baina bide barri horretatik igotea lortu eta altuerako kanpamentuak horniduten jarraitu genduan" azaldu eban Txikonek. Ha-ta guzti be, 7.050 metrotara igondakoan, buelta emon behar izan eben eta eguraldi hobea egin arte itxarotea ebatzi eben. Bertan egoteko baimena amaitu jakien eguraldiak aukerea emon barik.

Espedizino jasangarria eta humanitarioa

Alex Txikonek hainbat urte daroaz EKI Fundazioagaz lankidetzan. Fundazio horren helburu bat, garapen bidean dagozan herrialdeetako ikastetxeai, osasun zentroai eta interes sozialeko zentroai energia elektriko autonomorako iturriak emotea da, batez be eguzki energia fotovoltaikoaren bidez. Eta horixe egin dabe 2020an Makalu eskualdean. Eskolan be, 60 LED bonbilla autonomo banandu ebezan ikasleen artean.

Energiaren Euskal Erakundeak, energia barriztagarrien enbajadore izentau eban Txikon, eta Manasluko oinarritzko kanpamentuan erabilitako eguzki plakak, Makaluko Ospitalean estazino fotovoltaiko bi eregiteko balio izan dabe. Eta hara, Iñaki Ochoa de Olza-SOS Himalaya Fundazioa be instalazino eroangarri bi eroa-

tekoa da.

Jasangarritasuna garrantzitsua da Txikonentzat. "Funtsezkoa da niretzat gure espedizinoak ahalik eta jasangarrienak izatea eta bertako herritarrai ahal dogun guztian laguntzea. Oindino gehiago, holango urte baten, turismo faltearen ondorioz COVID-19ak sortu dauan krisi ekonomikoaren ondorioak asko sufriduten dabiz eta" dino.



Alex Txikon.

Argazkia: Phelipe Eizaguirre.

Karmengo Ama Ikastetxea
AMOREBIETA-ETXAND

AISIALDIA ?

UDALEKUVAK 2021

1-16 URTE

Ekainaren 21etik uztailaren 23ra arte

7:15-16:30	HAURTZAINDEGIA 1-2 urte
9:00-13:00	INGELERA, KIROLA, SORMENA 3 urtetik aurrera
9:00-14:00	PROGRAMAZIOA eta ROBOTIKA 5 urtetik aurrera

zerbitzu osagarriak

7:30 - 9:00	zaintza / jolasak
13:00 edo 14:00	JANTOKIA (txanda 2)
16:30ak arte	zaintza / jolasak

izenemotea

APIRILAREN 12tik aurrera
cmtidazkaritza@karmengoama.eus
946 730 935

informatu zaitetz!

IPUIN LEHIAKETEAK

Arteak ume eta gazteen Ipuin Lehiaketea antolatu dau

Erredakzioa

agertu behar dira.

Arteko Udalak, ume eta gazte-entzako euskerazko narrazio lehiaketea ipini dau martxan. Gaia libre da eta lanak apirilaren 9ra arte bialdu datitekez arteakultura@bizkaia.org helbidera. Sari banaketea apirilaren 24an izango da.

Parte hartzaile bakotzak lan bakarria bialdu ahal izango dau: izenburuduna, originala, beste lehiaketa batera aurkeztu bakoa eta argitaratu bakoa. Gehienez orri bi izango ditu, argazki eta irudi barik. Testua ordenagailuz idatzita egongo da, Word-eko dokumentuan, Arial letra tipoan eta 12 tamainuan.

Idazlanak ezizen batez sinatuko dira. Formatu digitalean bakarrik aurkeztu daitezke. Emailen idazlearen izen-abizenak, ezizena, jaiotze data, herria, eskolea, ipuinaren titulua, maila eta guraso/arduradunaren telefonoa

Kategoriak eta sariak

Kategoria bi dagoz. Umeena, 8 urtetik 12 urte arterakoa da. Kategoria honetako irabazleak 75 euroko bonoa izango dau saritzat eta bigarrenak 50 euroko bonoa.

Gazteen kategoria 13 urtetik 17 urterakoa da. Irabazleak 100 euroko bonoa izango dau saritzat eta bigarrenak 75 eurokoa.



ANTZERKIA

Txotxongilo antzerkia Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Sinopsia

Sorterriko arriskuak atzean itxita, Koton familia urira abiatuko da bizitza eta aukera barrien bila. Uriko teilatu, argien eta lantegiko makina eta oihalen artean, amak eta alaba bik abentura barriak eta arrisku ezezagunak biziko ditue. Baina, oingoan, ez dagoz bakarrik eta gogor ekingo deusie zoriotsu izateko gogoari.

Anita Maravillas

Anita Maravillas, txotxongilo antzerkia egiten dauan talde bakanetako bat da. Prestakuntza eta ikerketa luzea izan eban Bartzelonan eta Euskal Herrian ekoizten ditu ikuskinak. Taldearen beste lan batzuk *Jon Braun* edo *Pintto Pintto* dira.



BERTSO SAIOA

Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga Igorren

Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga izango dira aurtengo Igorreko sanjosetako bertso saioan bertsoan jardungo daben lau bertsolariak. Igazko kartel bera da; izan be, igaz bertan behera geratu zan saioa, konfinamentua zala eta.



Sustrai Colina eta Uxue Alberdi urtailean Lemoan.

Erredakzioa

Bertsozaleak, hilaren 19an, arrastiko zazpiretan izango dabe Arratiako Bertso Eskoleak antolatutako bertso saioaz gozatzeko aukerea Igorreko Kultur Etxean.

Saio honetako ezagurria dana lez, puntako bertsolariak egongo dira Igorren. Uxue Alberdi, bertsolari ezaguna izateaz gainera, idazle oparo eta saritua da. Haur eta Gazte Literaturako zazpi liburua ditu katean eta 2016an Euskadi Saria irabazi eban *Besarkada* (Elkar, 2015) liburuagaz. Narrazio lau liburu eta saiakerako bat, *Kontrako ezarririk: emakume bertsolarien testigantzak* (Susa, 2019). Alberdik, Bertsolari Eskola Feminista sortu eban eta bertsolari-tza mundua ikuspegi feministatik aztertzen lan handia egin dau.

Miren Amuriza Bertsolari Txapelketa Nagusian finalurrekoetara heldu da hainbat bider, eta Bizkaikoan finalista izan da lautuan. Literatureari jagokonean, Igartza Sariaren bekeagaz, *Basa* (Elkar, 2019) eleberria kaleratu eban. Kazetaritzan be jarduten dau, Berria egunkarian eta

Anboto aldizkarian kolaborazioak egiten ditu eretxi artikulua idatziz.

Sustrai Colina bost bider izan da finalista Bertsolari Txapelketa Nagusian, 2001, 2005, 2009, 2013 eta 2017an. Eta Xilaban, Iparraldeko bertso txapelketan, bitan lortu dau txapela. Bertso irakasle be bada eta kolaborazioak egiten ditu hainbat agerkitan; Berria egunkarian eretxi artikulua eta Argia aldizkarian alkarrizketak, besteak beste.

Unai Iturriaga durangarra, bertsolaria, idazlea, abeslaria, marrazkilaria, gidoigilea... artista polifazetikoa da Iturriaga. Bertsolaritza bi aldiz izan da Bizkaiko txapeldun eta Bertsolari Txapelketa Nagusian sei aldiz finalista. Musika arloan, Igor Elortza eta Josu Zabalagaz batera, 7 Eskale eta Gu ta gutarrak taldeak sortu ebazan. Marrazkilaria moduan komikigintzan jarduten dau. Antzerkia eta zinerako gidoiak egiten ditu eta 2017an Donostia Antzerki Saria irabazi eban Igor Elortzagaz batera idatzitako *Francoren bilobari gutuna* antzezlanaren gidoigaitik.

TELEBISTA

Netflix-eri euskeraz emitiduteko eskatzeko sinadurak batzean dabiz



Erredakzioa

6.000 sinaduratik gora lortu ditu Netflix Euskaraz ekimen herritarra eta herritar horreen artean, hainbat arratiar dagoz.

Netflix plataformak euskal hiztunen eskubideak ez dauzala beteten eretxita, herritar batzuek, tartean Arratiakoak, sinadura batze kanpaina bat abiatu dabe. Helburua, apirilaren 15erako 10.000 sinadura lortzea da. Helburua ez dala Netflix promozionetea dinoe bultzatzaileak, euskal hiztunen eskubideak errespetetea eta plataformari euskeraz emitiduteko eskatzea baino.

Izan be, Netflixek estadian jarduteko baimena euki arren, ez dau euskerea kontuan hartzean eta Netflix Euskaraz mobimentu herritarra sortu zan zezeilaren 16an "Netflixeri edukiak euskeraz emitidu dagiazala eskatuteko". Ekimenaren bultzatzaileen arabera, "Netflixek eta beste streaming plataformak etekin ikaragarriak ditue, eta ez deusie lekuan lekuko errealidade soziolinguistikoa begiratzen". Gainera, "plataforma honek dituen irabazi erraldoien zati nabarmen bat bertako ikus-entzunezko lanetan inbertiduteko behartu egin behar jakie, baita euskeraz be".

Mundu mailako ikus-entzunezkoen plataforma pribadu handiena da eta Madrilen dauka Europako egoitzea. Plataforma horregaz hasi arren, ekintzaileen asmoa "indarrak batu eta ikus-entzunezkoen industria osoari euskeraz aintzat hartzea exijidutea" dala adierazo dabe.



MUSIKEA

Heavy metal eta rap estiloko musikea Igorreko Kiñu Gaztetxean



Erredakzioa

Martiaren 19an, 18:30etik aurrera, Mutilated Judge, Obstetra eta Crucifucked taldeak kontzertua eskainiko dabe Igorreko Kiñu Gaztetxean. Hilaren 26an, barriz, oilar burrukea edo bat-batekotasun rap neurketea egongo da Gaztetxean. Rap neurketarako izen emotea zabalik dago; heavy kontzertuetarako barriz, ez da izenik emon behar.

Kontzertuak emongo dabean taldeen ordena eta ordutegi zehatza zehaztu barik dago.

Oilar burrukan, Igorreko rap inprobisatzaile bat edo bi, Bilboko beste bi eta Zeberioako eta Arrigorriagako "batzuk" espero ditue antolatzaileak. Gaiak Alize Egiluzek zehaztuko ditu eta bideratzaile Jon Pelaez izango da. Bat-bateko neurketeaz gainera, partaideren batek abestuko dau bere kanturen bat.

OLERKIA

IV. Poesia Topagunea Lasarte Aretoan

Martiaren 27an, 19:00etan, Nazinoarteko Poesia Eguna ospatuteko, Igorreko Udal Liburutegiak IV. Poesia Topagunea antolatu dau Lasarte Aretoan. Ez da izenik emon behar eta sarrerea libre izango da aforoa bete arte.

Erredakzioa

Oingo edizino honetan, Pablo Cabañas, Ana Juez, Eduardo "Zuhaitz", Susana Barrera, Bendrell Mohamed eta Irune Elexpek

irakurritako poemakaz, "ibilbide sakon bat egingo dogu bai denporan eta bai espazioan" dino Irune Elexpe antolatzaileak. Izan be, errepertorioa, rapso-den poema propioak eta, Lope

ANTZERKIA

Pez Limbo konpainiaren antzezlan bi Areatzako komentuan

Erredakzioa

Pez Limbo konpainiak antzezlan labur bi eskainiko ditu martiaren 26an, 19:00etan, Areatzako komentuan Nazinoarteko Antzerki Eguna dala eta. *Tripaki salda* eta *Margarita Molotov* antzezlanak, hain zuzen be. Izena bezpera arte emon daiteke, Areatza Urtaroka webgunean agertzen dan formula-ria beteta edo udaletxera deituta.

Pez Limbo konpainiaren ekoizpenak bere sorkuntzan oinarritzen dira. Errealidadeari begirada kritikoa egiten deusie, umorea, garratzasuna eta poesia buztartuz.

Umore traidore ale bat moduan definitzen dabe *Tripaki salda* antzezlanak Pez Limbo konpainiakoak euren webgunean. "Estualdi baten erdi-erdian, andra batek bere harakin izandakoarengana jotzen dau,

de Vega, Gabriel Aresti, Paddy Rekalde, Kirmen Uribe, Chantal Maillart eta Vicente Valerorenak osotuten dabe. Errezitaldiari lagunduteko musikea, Irune Garcia, Iker Allurrek eta Irune Elexpek joko dabe. Saioa amaitzean, publikoaren txandea izango da eta gura dauanak poemaren bat errezitatu edo kantatu edo beste zeozertarako aukerea izango dau.

Lasarte Aretoan

Aurreko urteetan liburutegian bertan egin da errezitaldia, baina aurtan Lasarte Aretoan egingo da COVID-19aren protokoloak ezartzen dabean distantziak gordeteko. Poesia "asko irakurten ez dan literatura genero bat da" eta irakurleak genero horretara hurreratzera da topagune honeen helburua. "Inoz ez da inor urten olerki saio batetik emozioan barik" dino Elexpek.



ezohiko eskari batez. Egoera labainkorra da oindino gehiago inprobisatutako triskantzearen lekuko izango diran beste pertsonen presentziaren ondorioz".

Margarita Molotov antzezlanak umore eta hondamendi koktel

antzeko bat eskaintzen deuto ikusleari. Bertan agertzen dira, desegindako jatetxe bat, aurrera egiteko prest dagozan andra bi eta simulazio bat edo akaso simulazioa baino gehiago dan zeozer.



DUNBA

Gure bazterrak

Zeanuriko eskolea

Gu Zeanuriko 6. mailako ikasleak gara eta 5. mailakoak batera Saldropora egin dogun txango bateri buruz idatzi dogu.

Bertan, Gorbeialdeko hiru begirale egon dira guri etxoten Saldropo hobeto ezetuten lagunduteko. Horretarako ginkana bat egin dogu hiru taldetan bananduta erronka desbardinak eginez; adibidez, uraren tenperatura neurtzea, urkiak zenbatzea, zapaburuak putzuan askatzea, aztarnak aurkitzea, enbor baten diametroa neurtzea, sorgin-orratzaren izen zientifikoa aurkitzea edo ostenduta egon diran txar-

telak bilatzea. Atzen hau izan da guretzat dibertigarriena txartelak bilatzeaz gainera, animaliak bere bizilekuak lotu behar izan doguzalako.

Ginkanako probak egin eta gero, hamaiketakoak jaten gogozanean, txori bat ikusi dogu. Begiraleak esan deusku lertxun bat dala eta erreka edo putzuetan egoten dirala uretan bizi diran animaliak jaten dituelako: arrainak, igelak, zizareak... Danok lertxuna ikusten hurreratu garanean, mobidu ez danez, begiraleak esan deusku seguru asko gaixorik egongo dala, akaso, plastiko zatiren bat edo jan daualako. Tupustean, txoria urduritu eta hegoak



zakar mobiduten hasi da hegaz egiteko ahaleginetan baina ezin izan dau eta lurrera jausi da. Begiraleak hori ikusterakoan, base go-

rria deitu dau nonok txoria hartu eta Gorlizeko animalien birgaitze zentrorara eroateko.

Hau ikusi eta gero, mezu hau

zabaldu gura dogu: ondo dago inguruak bisitetan joatea baina sortzean dogun zaborra gorde eta zaborrontzira bota behar da gure bazterrak garbi mantenduteko eta bertako espezieak babesteko.



AGENDA

MARTIAK 16**ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, asteleheneetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

ARRATIA

Areatzan eta Lemoan Berbalagun egitasmoan bidelaguna izateko izena emon 662 199 033 telefono zenbakian edo arratia_berba@aek.eus helbidean.

ARTEA

Apirilaren 9ra arte, ume eta gazteentzako Ipuin Lehiaketa. Euskeraz, gaia librea izango da. Haurren kategorian 8 urtetik 12 urtera; gazteena, 13 urtetik 17 urtera. Sariak: umeen kategorian, 1. saria 75 euroko bonoa, 2.a 50 eurokoa; gazteen kategorian, 1. saria 100 euroko bonoa, 2.a 75 eurokoa. Lanak arteakultura@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira. Sari banaketea apirilaren 24an izango da.

IGORRE

Hilaren 26an Kiñu Gaztetxean izango dan Oilar borrokarako izen emotea zabalik.

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo liburu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

LEMOA

Hilaren 23ra arte, 27an izango dan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizunerako izen emotea www.lemoa.net webgunean.

Liburutegia zabalik arrastoko ordutegian, asteleheneetik barikura 16:30etik 19:30era. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Bazen behin... euskal matriarkaduen mitoa* tailerraren bigarren saioa udaletxe azpiko gelan.

MARTIAK 17**AREATZA**

17:00etatik aurrera, San Patrick's

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Lemoan

Martiaren 27an, 11:30ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak *Amaren intxaurrak* ikuskizuna eskainiko dabe Lemoako kiroldegian. Izena, hilaren 23ra arte emon daiteke www.lemoa.net udal webgunean.

Heriotzea gaia dauka ardatz *Amaren intxaurrak* proiektuak. Heriotzea bizitzaren parte dala ulertuten lagunduten deutse naturak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-eri. Ikuskizunaz gainera, ipuina eta diskoa be atera dabe *Amaren intxaurrak* titulupean.

Sinopsia

Pirritx eta Porrotx Marimototsegaz alkartuko dira parke magikoan. Amatxo Loreto oin dala 3 urte hil zan. Intxaurrondoa landatu eben amatxoren oroimenez, bere agurrean. Gaur intxaurrondoa emon-dako lehen fruituak dastatuko ditue. Intxaurrak jan ahala, Loretozag bitzako abenturak partekatuko ditue ume eta familiakaz.



eguna The Quiet Corner tabernan. Pinta bigaz kamisetea opari.

18:30ean, Bardintasan diagnostikoaren aurkezpena. Ondoren, Zapalduen Antzerki Konpainiaren *Egunon!* antzezlanaren Udal Areto Nagusian.

LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazino zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakotxean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da www.lemoa.net webgunean.

MARTIAK 18**ARTEA**

18:30ean, *Euskal literatura eta emakumeak* mahai-ingurua, Katixa Agirre eta Alaine Agirre idazleakaz. Gidaria: Bea Azipiri. Kultur Etxean.

IGORRE

19:00etan, Mendi Amesgarriak Mendi Tour Mendifilm-eko onena. *Charge 2* eta *Hillary-Ocean to Sky* filmak Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:30ean, Herri Antolamenturako Plan Orokorraren aurrerapena, 2. tailerra. Tipirrikan (Arraibi). Izena www.lemoa.net/HAPO-PGOU helbidean emon.

MARTIAK 19**IGORRE**

18:30ean, *Mutilated judge*, Obstetra eta *Crucifucked* taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

19:00etan, sanjosetako bertso saioa. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Miren

Amuriza, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga Lasarte Aretoan.

MARTIAK 20**AREATZA**

Parketxeak antolatuta, mendi ibilbidea: Pagomakurre-Arraba-Lekanda-Pagomakurre. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonon.

ARTEA

18:30ean, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua. Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Uxue Alberdi eta Miren Artetxe. Gai emoiela: Maite Berriozabal. Frontoian.

IGORRE

18:00etan, Anita Maravillas konpainiaren *Kotondarrak* itere antzerkia Kultur Etxean.

MARTIAK 21**AREATZA**

Udabarri osoan zehar ekintza autogidatua. Arrabako zelaietan mendizaletasuna sustatzeko proba jolasa. Beharrezko materiala jaso Parketxean.

IGORRE

09:00etan, Makatzak eta Intxaurbizkar alkarteak antolatuta, Urkuzutik, Igorretik eta San Kristobaletik Aramotzera martxea. 12:30ean, Aramotzen batu. Sai zuri bikotea Aramotzen. Inguruko puntu baltzak aztertu.

16:30ean, zinea, *Gusanos*; 18:45ean, *Madame Curie* Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, *¿Es esa mi enemiga? Bera da nire etsaia?* Arteako andra etorkin errefujiadukaz sortutako antzezlanaz. Izena aurretik emon www.harrietarrakblog.wordpress.com helbidean.

MARTIAK 22**LEMOA**

09:30etik 11:00etara, asteleheneetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, alde aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era asteleheneetan, orientazino zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

MARTIAK 23**IGORRE**

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahalduntzea argazkilaritzaren bidez* ikastaroa Adirane Azkuenagaren eskutik IKEn.

MARTIAK 24**BEDIA**

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalen eskutik.

LEMOA

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazino zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakotxean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da www.lemoa.net webgunean.

19:00etan, berbaldia *¿Qué es el racismo? Aclarando términos supuestamente sencillos* Jubiladuen etxeko goiko aretoan. Izena www.lemoa.net helbidean emon.

MARTIAK 25**ARTEA**

17:30ean, zineforuma, *El hilo de la luna* filma Kultur Etxean.

LEMOA

18:00etan, IdoiArrizabalagaren *berbaldia Txertoaren eta legearen gainbegirada bat eta osasuntsu mantentzeko gida* Karabie Gaztetxean. Izena aurretik emon www.harrietarrakblog.wordpress.com helbidean.

MARTIAK 26**ARANTZAZU**

19:00etan, *Erradikalak ginen* Kultur Gunean.

AREATZA

19:00etan, Pez Limbo konpainiaren *Tripaki salda* eta *Margarita Molotov* antzezlanak. Izena bezpera arte emon daiteke Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonon.

IGORRE

18:30ean, Oilar borroka rap ikuskizuna Kiñu Gaztetxean.

MARTIAK 27**DIMA**

18:00etan, Andraizeak antolatuta, Naizen alkarteko kide batek, *Transformatzen* berbaldia. Eskolako kamaran.

IGORRE

19:00etan, IV. Poesia Topagunea Lasarte Aretoan.

MARTIAK 28**IGORRE**

12:00etan, Bultza euskaltegiak! Bultza euskara! Ekimenaren aurkezpena eta talde argazkia Kubulu Euskaltegian.

16:30ean, zinea, *Lupin III: The First*; 18:45ean, *Entre nosotros* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 29**AREATZA**

Apirilaren 11ra arte, Gorbeia inguruko artisau produktuen erakusketea Parketxean.

LEMOA

09:30etik 11:00etara, asteleheneetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, alde aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era asteleheneetan, orientazino zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

MARTIAK 30**IGORRE**

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Ahalduntzea argazkilaritzaren bidez* ikastaroa Adirane Azkuenagaren eskutik Kultur Etxean.

MARTIAK 31**LEMOA**

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazino zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakotxean 10 personako taldeak gehienez izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da www.lemoa.net webgunean.

begitu
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

www.begitu.org

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: naroa_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoi eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezker idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezker deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Kotondarrak antzeztan**erako.

Haritza Iturbe (Arantzazu)
Oihane Barrenetxea (Dima)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umeen moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semoda@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO



NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
04 631 52 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf: 94-673-70-87
Tlf: 609-79-40-54

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 1.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3. beheka - Igorre (Bizkaia)

Gugaz harremanetan ipinteko
Publizitatea: 649 979 115
begitu
94 631 73 14
649 979 112
begitu@topagunea.com www.begitu.org

begitu

arratia
ubide
zeberio



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jabetxean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu aprilean.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



cecobi

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!

LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAU@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA







begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.